

Martxoak 8: Emakume Langileen Nazioarteko Eguna

Zaintzen krisi batean murgilduta gaudela dioten ahotsak aspalditik datoz, eta toki ezberdinetatik. Baina ez dira atzokoak krisi honi erantzun nahi dioten mugimendu eta ekimenak ere. Horri lotuta, nabarmendu nahi dugu, pasa den azaroan, Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa ardatz, Greba Feminista Orokor aitzindaria izan genuela Euskal Herrian. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eusteko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan. Diskurtso hutsalak alde batera utziz, elkarlanerako eta sistema publikoaren defentsarako bideak ezartzeko eta eraikitzeke garaia da.

Grebaren bidez, argi geratu zen herritar guztien bizitzek ez dutela berdin balio gure herrietan, eta emakumeen gainean erortzen dela zaintzaren lan karga gehiena. Horren ondorioetako bat dira feminismoetatik izendatutako lanaldi bikoitz edo hirukoitzak. Ondorioz, emakumeei beren denbora beste gauza batzuetan eskaintzeko aukera kentzen zaie, izan lan ordaindua, militantzia politiko-soziala... Hau da, boterea zentzu zabalean dakarten eta gaitasun politikoak sortzen dituzten alor horietan guztietan aritzeko aukera murrizten zaie emakumeei. Denboraren banaketa desparekoak daude oraindik ere, eta emakumeek zaintzen ematen duten denbora horretan, lan horietan ardurarik hartzen ez duten gizonek boterea metatzen jarraitzen dute.

Egoera honen kontziente izan behar dugu, eta horri erantzungo dioten politika publikoek emakumeek boterea hartzea sustatu behar lukete. Horretarako, ezinbestekoa da Gobernantza Feminista aurrera eramatea. Gobernantza Feminista berdintasun politiketan kokatu izan da historikoki, Berdintasun Planen zutoinetako bat bezala, eta horri Gobernu Ona esaten zaio. Egiteko moduei egiten denari baino gehiago begiratzean datza. Demokratizazio prozesu bat da oro har, lehentasuna definitzeko beste begirada bat; jarduteko eta lan egiteko prozeduretan aldaketa. Gobernantza feministari buruz ari garenean, lidergo transformatzaile bati buruz ari gara, eta beharrezkoa da ikuspegi feminista txertatzea.

Garrantzia eman behar diogu publiko eta komunitarioaren arteko harremanei, elkarrekin sortzen diren bidegurutze berri eta ardura partekatuei. Ezin dugu ahaztu komunitatea ez dela norbanakoen batuketa soil bat, lurralde batean bizi diren eta menderakuntza sistemak sortzen dituzten eta bizi dituzten izaki taldeen multzoa baizik. Beraz, komuna dena kudeatzeko erantzunkidetasuna behar dugu, eta horretarako argi izan behar dugu politika bizitzaren eremu guztietan artikulatzen dela. Beraz, zeharlerrotasun erradikal bat martxan jarri behar dugu. Hau da, estruktura estankoak apurtu behar ditugu. Beharizan nabarmen eta erronka handi hauen aurrean, gure herriak, dinamika

eraldatzaile eta proposamen eta aldarrikapenak jasoz, topaketa eta elkarrizketa guneak bultzatu eta indartu behar ditu.

Horregatik guztiagatik, Azpeitiko Udalak honako konpromisoak hartzen ditu:

- **Emakumeen ahalduntze** indibidual, kolektibo, sozial eta politikoa sustatzen jarraituko du udalak, tartean, Emakumeen Txokoko ekimenen bitartez.
- Emakumeen Mahaia indartzeko lan egingo du, **governantza eredu parte hartzaile eta demokratiko bat** garatzeko asmoz.
- **Barne Berdintasun Planaren** bidez, gobernantza ereduaren inguruan lan egitea sustatuko du.
- Udal eskumeneko **laguntza eta zaintza zerbitzu publikoak** indartuko ditu.
- **Zaintzaileentzako espazio propioak** bultzatuko ditu, beraien lan eskubideak bermatu eta zaintza arloan dabilzan emakumeen ahalduntzea sustatzeko.
- **Parekidetasun Saila** egonkortzeko eta indartzeko konpromisoa hartuko du.
- Kontzientziazio-, sentsibilizazio-, prestakuntza- eta erreparazio-lana sustatzen jarraituko du, indarkeria matxistak desagerrarazteko bidean aurrera egiteko.
- **Indarkeria matxista** jasan duten emakumeen erreparazio eskubidearen alde guztiak (tartean, egiaren hedapena, kalte-ordainketa, akonpainamendu soziala edo ez errepikatzeko bermea) lantzeko programa iraunkorrak, eta osasun egoerari egokitutakoak, martxan jarriko ditu, besteren artean, protokoloak, memoria historikoa berreskuratzea, omenaldiak, jardunaldiak, tailerrak, ikerketak, zineforumak, emakumeak ikusarazteko ekimenak (kaleen izenak, kasu)... jasoz.
- **Emakumeen memoria historikoa** aitortu eta berreskuratuko duten proiektuak garatzen jarraituko du, aurrez **Matazak** egitasmoarekin egin bezala.

Azkenik, herritarrei dei egiten diegu martxoaren 8an mugimendu feministak antolatutako mobilizazio eta ekimenetan parte hartzera.